

Kameraren aginteak (eta II): diafragman eta obturadorea

Itziar Nogeraz


Diafragma

Kamera batean bi modutara kontrola daiteke pelikulara iristen den argia: objektiboaren atzean dagoen irekidura aldakorraz irudia argitu edo ilunduz, eta obtu-


radore erregulagarri batez pelikulara iristen den argiaren iraupena aldatuz.

Irekidura aldakor hori, aurreko batean esan genuenez, diafragma da. Subjektu ilun bati argazkia ateratzeko, diafragmari irekidura

Diafragmaren erabilera



Diafragma-eraztuna



Diafragma eta foku-distantzia



Jon Larrañaga



Jon Larrañaga



Bi argazki hauetan diafragmak irudiaren araztasunean duen eragina ikus dezakegu. Biak puntu berean enfokatuta daude. Goikoa f5ean (eta 112.000 abiaduran) aterata dago eta araztasun-eremu txikia dauka. Behokoa f22an (eta 11125 abiaduran) aterata dago eta ia irudi osoa lehen planotik hondoraino dago arazt. Honek aurrerago ikusiko dugun eremu-sakonerarekin du zerikusia.

handiagotu egin beharko zaio, ahal den argi-kantitate handiena sar dadin. Oso argiztatua egonez gero, irekidura txikiagotu egin beharko zaio. Horrela, bi argazkietan antzeko emaitza lortuko



da; pelikulak esposizio berdina eduki baitu.

Diafragma kontrolatzeko eraztunak "f zenbakiez" osatutako eskala darama. Zenbaki bakoitzak, aurrekoaren argiaren erdia edo hurrengoaren bikoitza adierazten du.

"f zenbakiek", diafragmaren posizio bakoitza adierazten dute. Baina, diafragmaren irekiduraren diametroa adierazi beharrean, diametro bakoitzaren eta foku-distantziaren arteko zatidura dira.

Neurri-sistema horrek, edozein objektiborekin diafragma jakin batean argi-kantitate bera sartuko dela ziurtatzen du. Horrela, objektiboak aldatutakoan, ez dira esposizio-arazoak sortuko. Zenbakia zenbat eta handiagoa izan, irekidura hainbat eta txikiagoa izango da. Eskalako zenbakirik txikiena, hau da, objektiboaren irekidurarik handiena, objektibo normal honetan f2 ingurukoa izaten da.

Zerorrek frogatzen zenezake

Argitasun desberdineko bi momentutan (egun eguzkitsuan eta egun lainotuan; egun bereko ordu desberdinetan) argazki bera atera. Ikus ezazu argazki bakoitzean zein diafragma behar izan duzun.

Zerbaiti momentu berean, diafragma desberdinak erabiliz (eta dagokien obturatze-abiadura jarritz), bizpahiru argazki atera. Emaitzak desberdinak direla ikusiko duzu.

Obturadorea

Esan bezala, diafragmaz gain, pelikulara iristen den argia kontrolatzeko badago beste bide bat: obturadorea, hain zuzen ere.


Horren lana, pelikulara iritsiko den argiaren iraupena (argi-kantitatea, alegia) erabakitzeaz gain, argi hori zein momentutan sartuko den erabakitzea ere bada.

Kameraren beste aginte batek (eraztunak edo gurpiltxoak) obturazio-abiaduren eskala darama. Kamera sinpleek, abiadura bakarreko edota ikur klimatologikoz adierazitako hiruzpalau abiadura-ko obturadorea daukate.

Eskala horrek, bigarrena edo bigarrena "f zenbakietan" bezala, zenbaki bakoitzak aurrekoaren esposizio-denbora erdia edota hurrengoaren bikoitza adierazten du. Ezazgarri amankomun hau garrantzitsua da; geroago aztertuko dugun konbinazioak egiteko aukera ematen baitu. B posizioan, obturadorea, kliskailua sakatuta dagoen bitartean, irekita egoten da.

Obturazio-abiadurak, ez du esposizioa bakarrik eragina. Higitzen ari diren objektuak nola aterako diren ere bere baitan dago. Bigarren atalean bi obturadore-mota zeudela ikusi genuen. Zentrola edo xaflatxozkoa, bisore zuzeneko kamerek izan ohi dute. Obturadore-mota hau objektiboen egoten da eta argia esposizio-momentura arte ez da gorputzeraino iristen. SLRek foku-planoa daramate. Hauetan, kameraren gorputzean kokatuta dago, pelikularen aurre-aurrean. Sistema honen bidez objektiboa alda daiteke, pelikula belatzeko arriskurik gabe. Esposizio bitartean

Abiadura-agintea erabiltzeko era



Abiadura-gurpiltxoak

bata bestearen ondoren pasatzen diren bi gortinatxok osatzen dute. Abiadura-agintea bien arteko tartea aldatzen du, tartea zenbat eta txikiago izan, esposizio-denbora hainbat eta txikiagoa izango delarik. Bestetik, kamera askok autokliskailua darama. Berorren bidez, botoia sakatu eta 10-30 segundo bitartean obturadorea ez da irekitzen. Oso erabilgarria da autorretratuak egiteko edota taldeko argazkietan argazkilariek ere bertan atera nahi duenean. Argazkia ateratzeko unean kamera mugitzea arriskua dagoenean ere erabil daiteke, egon litekeen mugimendua segundo horiek in saihas daiteke eta.

Zerorrek frogatzen zenezake

Higitzen (higidura motela bada, hobe) ari den zerbaiti obturadore-ko abiadura desberdinak erabiliz (eta dagokien diafragma jarritz), argazkia atera. Emaitzak desberdinak direla ikusiko duzu.

B	1	1/2	1/4	1/8	
1/15	1/30	1/60	1/125	1/250	1/500

Obturazio-abiaduren eskala